

MANTXURIA



Lurralde naikoa zabala da., España ta Frantze alkartuta izango litzakezan bestekoa.

Zati bitan banatzen da: Iparralde menditsua da bata eta sartaldeko lur malkarrak bestea.

Artzain ibiltariak ziran antxiña, eta mongoliarren aurretikoak ziran. Geroago artu dabe Mantxuriar izena gudazale indartsu oneik.

1616n. urtean alkartu ziran eta orduan lortu eben lenengo erreinua, Naurhatxu lenengo agintaria ebela. Onek Txina menperatu nai izan eban baiña beronen gudari azkarrak Txina'ko arresi aundian sartzen ikusi al izateko beste denporan ez zan bizi izan.

Andik laster menperatu eben Txina, 1644n. urtean. Eta orrelan jarraitu eben 1911n. urtera arte. Urte onetan kendu eben azkenengo erregiña alarguna.

Mantxuritarrek eta txinatarrek alkarrekin ezkontzea debekatuta egoan. Euren etxeak itzi barik, Txina'ren iparraldean jarri ziran bizi izaten eta lengo etxeetara udan edo ekizarako joaten ziran.

Gobernu-era zarrak iraun eban eta millaka txinatar izendatu ebezan gobernatzaile mantxuriarri laguntzeko. Erriko Batzar Nagusiko erdiak ziran txinatarrek.

Gero euren lurak txinatarrai saltzen asi ziran eta txinatarrek pozik lur orreik artzeko. Orrelan Mantxuria'n be txinatarrek egin ziran nagusi, ez ezpatakaz, goldakaz baiño.

Mantxuriar emekumeak ez eben ankarik lotzen txinatarrek lez, alkarragaz ezkontzeko baimena emon eben. Guztiak jarri ziran "mandarin" en oituropean

XVII eta XVIII gizaldietan, Kang eta Txing erege zirala, lortu eban Txina'k aginpiderik aundiena eta ipar-aldeko basatiak be ederti-zale biurtu ziran. Au izan zan Txina'ko elertiaren urre-sasoia. Orduan idatzi ziran ango libururik jotarrenak, iztegiak, enziklopediak, edestiak eta lutelesti-lanak. Orduan egin ziran buztiñezko eta portzelanazko lanik ederrenak, munduko onenak.

Azkenengo eun urtetan erregeak asko makaldu dira eta Txina'ra erbesteko modak sartzen asi diran antzera, mantxuriarrak be or nastatu dira eta euren lurraldea errusitarren sarbide biurtu zan.

Mosku'tik Bladistok'eraño trena egin zan, Matxuria'ren erdi-erditik.

Mantxuria'ko trenak lurralde osoa industriara sartzea lortu dabe. Europartu egin dira. Asiak garitegia itzi eta egurra, artilea,, ikatza, burdinkiak, lekak, olio, narruak eta olakoak artu dauz aberats-bide. Laba Aundiak, kimika-lantegiak jaboi-olak, auto ta bagoigintzak, ontzi-olak eta zerra-olak eta beste ola asko sortu dira an.

Gauza guzti oneik kanpoko dirua sartu dabe Mantxuria'ra. Lenago Errusia eta Japon ibilli ziran Mantxuria menperatugurean, baiña azkenean Txina'ko Errepublikak, komunistak, eurengandu dabe lurralde au.

OLAZAR'tar Martin'ek.